* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du mozioa babestuko dutela. Eusko Jaurlaritzarekin egiaztatu dute eta esaten diete Gipuzkoan ere jardungo direla, zehazki, Irunen, lehentasunezkoa delako, hiru heriotza gertatu direlako denbora gutxian. Esan diete lehentasun-irizpidea ematen duten zerbitzuaren arabera ezartzen dela, eta Errenteriakoa gehien erabiltzen denetakoa dela eta segurtasun-arrazoiengatik lehentasunekoen artean egongo litzatekeela. Hala eta guztiz ere, Alderdi Sozialistak bere mozioan adierazi duen 300.000 euroko zifra zuzena da, 100.000 € Irunen jarduteko erabiliko dira eta, Errenteriarako aurreikusitakoa, estazioa berritzeari lotuta dago eta 20 milioi eurokoa da. Beraz, beharra ikusten dute, mozioa babesten dute eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote ahal duen guztia egin dezan Errenteriak lehenbailehen izan dezan berritze hori.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que van a apoyar la moción. Han contrastado con el Gobierno Vasco y lo que les dicen es que en Gipuzkoa también se va a actuar, en concreto en Irun porque está catalogado como prioritario debido a las muertes que ha habido, concretamente tres en poco tiempo. Les señalan también que el criterio de prioridad viene establecido por el servicio que se presta, y concretamente el de Errenteria es uno de los más frecuentados y por motivos de seguridad entraría también dentro de los prioritarios. No obstante, la cifra de 300.000 € que señala el Partido Socialista en su moción es correcta, 100.000 € se destinan a la actuación en Irun y la actuación que está proyectada en Errenteria, que va unida a la reforma de la estación, está cifrada en 20 millones de euros. Con lo cual, comparten la necesidad, apoyan la moción e instan al Gobierno Vasco a que haga todo lo posible para que Errenteria cuente cuanto antes con esa reforma.

* Mendoza alkate jaunak (OE BILDU) euskaraz

* Interviene en euskera el Alcalde Sr. Mendoza (O.E.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

adierazi du, aipatutakoaren harira, bere ustez hor planteatzen den soluzioa trenbidearen pasorako, konkretuki soterramenduarekin lotzen dela, eta zalantzarik gabe horrek kostu ekonomiko handia duela. Beste garai batzuetan kostu ekonomiko hori etxebizitzen eraikuntzarekin finantzatu zen. Berak uste du garrantzitsua dela horrelako operazio bat ez ez lotzea inondik inora horrelako beste operazio urbanistiko batekin. Ezin duena da horrelako operazio batek herri baten garapen urbanistikoa baldintzatu. Eta, zentzu horretan, eskatzen du etorkizunean ere edozein soterramendu-planteamenduk ez dezala baldintzatu proiektu urbanistikorik edo garapen urbanistikorik.

Mintzaldiak amaitu dira.

Udalbatzak, aho batez,

**E R A B A K I  D U**

Onartzea Errenteriako talde sozialistak udalerriko trenbide-pasaguneak kentzeari buruz aurkeztutako mozioa (gaiaren azalpenean jaso da).

BILDU) manifestando que, al hilo de lo mencionado, en su opinión la solución que ahí se plantea para el paso del tren se vincula con el soterramiento y sin lugar a dudas eso tendrá un gran coste económico. En otros tiempos ese coste económico se costeó con la construcción de viviendas. En su opinión, es importante que una operación de este tipo no se vincule de ninguna manera con una operación urbanística. Lo que no puede ser es que una operación de este tipo condicione el desarrollo urbanístico de un pueblo. Y, en ese sentido, solicita que en el futuro ningún planteamiento de soterramiento condicione proyectos urbanísticos o desarrollos urbanísticos.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**A C U E R D A**

Aprobar la Moción presentada por el Grupo Municipal Socialista de Errenteria sobre la supresión del paso a nivel en el Municipio,  que consta en la parte expositiva del presente asunto

**8. Oarsoaldea eskualdeko “Pikoketa” Errepublikaren aldeko Elkarteak aurkeztutako eta Errenteriako Ezkerrak sinatutako mozioa, Errenteria “III. errepublikaren aldeko udalen sarea”n txertatzea eta datorren apirilaren 14an bandera errepublikanoa jartzea eskatzekoa.**

Idazkari nagusiak mozio hau irakurri du:

Oarsoaldea eskualdeko “Pikoketa” Errepublikaren aldeko Elkartekook konbentzitua gaude Errepublika dugula eratzeko modurik egokiena,  anaitasunez elkarrekin bizi behar duten pertsonen erakunderik egoki eta duinena baita, denok libre eta berdinak,

**8. Moción presentada por la Agrupación Republicana de Oarsoaldea "Pikoketa" y suscrita por Errenteriako Ezkerra, solicitando la incorporación de Errenteria a la "Red de municipios por la III República " y la colocación de la bandera republicana el próximo 14 de abril de 2014.**

Leída por la Secretaria General la siguiente moción:

"La Agrupación Republicana de Oarsoaldea tenemos el convencimiento de que la República es la manera de constituirnos, como organización política más propia y digna de las personas que han de convivir fraternalmente, libres e iguales, inspirados por la razón

arrazoian eta hitzetan oinarria hartuta.

Erakusten dugun errepublika zaletasuna ez da soilik gobernatzeko era bat aldarrikatzea, Errepublika, bestearen aurka, hau da, monarkiaren aurka, beste alor batzuetara ere hedatzen baita. Errepublikaren bidez lortu nahi dugun bizitza politikoaren ikusmoldea benetako demokrazia baten aldeko egoera da, herritarrek dute erantzukizun publikotik sortua. Erantzukizun errepublikano horrek lotura izan behar du etikaren jardunarekin arlo politikoan nahiz sozialean, ahaleginak egiten baititu herritarrek aktiboki parte har dezaten, eta, baita baliabideekin ere parte-hartze hori sustatzeko guztion onerako, eta justiziaren eta berdintasunaren alde. Errepublikak demokrazia plaza ireki gisa aldarrikatzen du, ez merkatu gisa, horietan indartsuek ahulak mendean hartzen baitituzte.

Ezarri nahi dugun gizarte egiturak lanaren eta norberaren ahaleginaren emaitzak nahiago ditu herentziaren eta solidaritate ezaren berekoikeria baino. Nahi dugun Errepublikak oinarri ditu lan duina, kultura eta hezkuntza... Errepublika modernoa nahi dugu, herrien bilakaerari eta errealitateari adi eta etorkizuna hautatzeko eskubidea babestuko duena, eta, giza balioak zabaldu nahi dituena solidaritate gabeko eta balio oldarkorren aurre egiteko.

Helburu horiek lortzeko “Pikoketa” Oarsoaldeako Elkarte Errepublikanoa eratu dugu. Baina lortu nahi dugunak mota guztietako elkarte, talde eta instituzioen laguntza behar du, instituzio, kargu publiko, entitate eta herritarren sare horrek asmo errepublikanoak bultza ditzan. Ibilbide horretan garrantzizko osagarria da “III. errepublikaren aldeko udalen sarea”n, eta, horrela iritzi diote hurbil ditugun Pasaia, Tolosa edo Eibar herriek, bat egin baitute sare horrekin.

“Pikoketa” Oarsoaldeako Elkarte Errepublikanoak

y la palabra.

El republicanismo que manifestamos no es sólo la reivindicación de una forma de gobierno, la República, opuesta a otra, la monarquía, sino que se extiende a otros ámbitos. La concepción de la vida política que pretendemos con la República es la de un orden verdaderamente democrático, emanado de la responsabilidad pública de la ciudadanía. Esta responsabilidad republicana, debe estar unida al ejercicio de la ética en lo político y en lo social, que busca que la ciudadanía participe activamente, y a los medios para promover dicha participación en aras del bien común, la justicia y la igualdad. La República preconiza la democracia como una plaza abierta, no como un mercado, en el que los débiles están sometidos a los fuertes.

La arquitectura social que pretendemos, prefiere los frutos del trabajo y el esfuerzo personal y colectivo, al egoísmo de la herencia y la insolidaridad. Queremos una República cimentada sobre el trabajo digno, la cultura y la enseñanza..... Una República moderna, atenta a la evolución y la realidad de los pueblos y que defienda su derecho a decidir libremente su futuro, que aspira a extender los valores humanísticos frente a valores agresivos e insolidarios.

Para alcanzar estos objetivos nos hemos constituido como Agrupación Republicana de Oarsoaldea. Pero lo que se busca conseguir necesita de la labor de todo tipo de asociaciones, agrupaciones e instituciones. Una red de instituciones, cargos públicos, entidades y ciudadanía que impulse la idea republicana. Un elemento importante en ese camino es la “Red de Municipios por la IIIª República” y así lo han entendido municipios cercanos como Pasaia, Tolosa o Eibar que se han adherido a dicha red.

La Agrupación Republicana de Oarsoaldea se dirige



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Errenteriako Udalbatzari zera

PROPOSATZEN DIO:

- Errenteriako Udalak bat egitea eta parte-hartzea "III. errepublikaren aldeko udalen sarea"n.

- Mozio honetan adierazitako balioak aintzat hartu eta balio horien alde askatasuna eta bizitza ere galdu zuten pertsonak gogoratzeko, datorren apirilaren 14an Udaletxe honetako fatxadan bandera errepublikanoa eta ikurrina jar ditzatela.

Mintzatu dira:

* Francisco Javier Álvarez Barral jaunak, Oarsoaldea eskualdeko "Pikoketa" Errepublikaren aldeko elkartearen ordezkaritzan, adierazi du guztiek badutela haiek aurkeztutako proposamena. Komentatu nahi duen gauza bakarra da duela bost bat urte, Andaluziako zenbait udalerritan, Hirugarren Errepublika osatzearen aldeko Udalerrien Sarea sortzen hasi zirela eta orduz geroztik Espainiako Estatuko udalerri asko atxiki zaizkiola udalerrien sare horri. Badira gertuko udalerri batzuk, adibidez, Eibar duela bi edo hiru urte atxiki zen, uste du Pasaia ere baietz, eta elkartearen ustez interesgarria litzateke Errenteria ere sare horretan sartzea. Mozioak bi puntu planteatzen ditu, alde batetik, Udalerrien Sarean sartzea eta, bestetik, apirilaren 14an, bigarren errepublikaren aldarrikapena ospatzen den egunean, udaletxeko balkoian bandera errepublikanoa egotea.

* Ferradás jaunak (Errenteriako Ezkerra) adierazi du ez dela sorpresa mozioaren alde bozkatuko dutela esatea. Errepublikaren iragana kontua hartuta egiten du, ulertuz iraganak ilun baino argi gehiago izan zuela, nahiz eta denetik egon zen. Baina bigarren

al Pleno del Ayuntamiento de Errenteria y

PROPONE:

- Que el Ayuntamiento de Errenteria se adhiera y participe en la "Red de Municipios por la IIIª República".

- Que como reconocimiento a los valores expresados en esta moción y en recuerdo a todas las personas que perdieron su libertad e incluso su vida en defensa de los citados valores, el próximo 14 de abril ondeen la bandera republicana y la ikurriña en la fachada de este Ayuntamiento."

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr .Francisco Javier Álvarez Barral en representación de la Agrupación Republicana de Oarsoaldea Pikoketa señalando que todos tienen ya la propuesta que han presentado. Simplemente quiere comentar que hace unos cinco años, desde una serie de municipios de Andalucía, se comenzó a crear la Red de Municipios por la Constitución de la Tercera República y desde entonces han sido muchos los municipios de todo el Estado Español que se han ido adhiriendo a esa Red de Municipios. Hay municipios cercanos como Eibar, que se adhirió hace unos dos o tres años, cree que Pasaia también, y entendían desde la Agrupación que sería interesante que Errenteria también se adhiriera a la Red. En la moción plantean dos puntos, por un lado la adhesión a la Red de Municipios y por otro, que el 14 de abril, dia en que se conmemora la proclamación de la segunda República, pudiera estar presente en el balcón del Ayuntamiento la bandera republicana.

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que evidentemente no es ninguna sorpresa el decir que va a votar a favor de la moción. Lo hace desde la consideración, no solo del pasado de la República, entendiendo el pasado con más

Errepublikaren aldi historikoak zer suposatu zuen begiratzen baduzue, duela gutxi ikusten zuten herri honetan, Garbiñe Biurrun EAEko Auzitegi Nagusiko epailearen lan-arloko hitzaldi batean, garai hartako lan-arloko legeriak ondo eusten diola konparazioari eta gaur egungoa nabarmen hobetzen duela zenbait alderditan. Gauza bera esan genezake garai hartan emakumeei aitortu zitzaizkien zenbait eskubideren, irakaskuntza publikoa zabaltzeko emakumeek izan zuten paperaren edo Espainiako Estatuan herriak eta herritartasunak aitortzearen inguruan -zehazki, Euskadiko eta Kataluniako estatutuak onartuta eta uztailaren 18ko altxamenduagatik onartu ez zen Galiziako Estatutua idatzita-. Baina azpimarratzen du Ezker Anitza-Izquierda Unidak ez duela iragan horregatik egiten Errepublikaren aldeko apustua, etorkizunagatik baizik. Ez dute monarkiagatik bakarrik egiten, errege-etxea nabarmen hobetzeko modukoa delako alderdi eta jarduera guztietan, baizik iruditzen zaielako XXI. mendea herritarren mendea dela eta Oarsoaldea eskualdeko “Pikoketa” Errepublikaren aldeko Elkarteak aurkeztutako mozioan jasotzen diren balio guztien mendea delako. Horregatik, uste dutelako herritarren garaia dela, iruditzen zaie Errepublika ekartzeko lana guztioi dagokigula, ildo horretan, udalerriek paper garrantzitsua izan behar dute eta lehen pausoa Euskadiko 14 udal biltzen dituen Hirugarren Errepublikaren aldeko Udalerrien Sarea da.

luces que sombras a pesar de que de todo hubo. Pero si miran lo que supuso aquel período histórico con la segunda República, veían hace poco en este pueblo, en una charla con Garbiñe Biurrun, magistrada del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en materia laboral, que la legislación laboral de aquella época aguanta perfectamente la comparación e incluso mejora sustancialmente en algunos aspectos la actual. Lo mismo se podría decir de algunos de los derechos de las mujeres que se reconocieron en aquel tiempo, el papel de las mujeres en la extensión de la enseñanza pública, o el reconocimiento de la existencia de pueblos y nacionalidades en el Estado Español, en concreto con la aprobación de los Estatutos Vasco y Catalán, y la redacción del Estatuto Gallego que no se llegó a aprobar por la sublevación que se dio el 18 de julio. Pero insiste en que no es por esa consideración de pasado, sino por una consideración de futuro que desde Ezker Anitza - Izquierda Unida apuestan por la República. No lo hacen solo por la Monarquía, por la Casa Real que les ha tocado en suerte, que es manifiestamente mejorable en casi todos sus aspectos y actuaciones, sino lo hacen porque consideran que el siglo XXI es el siglo de las ciudadanas y ciudadanos y de toda una serie de valores que cree se recogen en esta moción que presenta la Asociación Republicana de Oarsoaldea. Por eso, porque creen que es el tiempo de la ciudadanía, consideran que la labor de traer la República es una labor de todos, en ese sentido los municipios tienen que jugar un papel importante y el primer paso es esa Red de Municipios por la Tercera República que agrupa ya a 14 ayuntamientos vascos y navarros entre otros. Para finalizar reitera que votará a favor de la moción presentada.

* Herzog jaunak (PP) adierazi du oso atsegina izan dela Paco Álvarez bere ideiak eta asmoak azaltzen entzutea eta, guztiok dakiten moduan, ideia horiek

* Interviene el Sr. Herzog (PP) manifestando que ha sido muy agradable escuchar a Paco Álvarez exponer sus ideales y pretensiones, ideales que



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

partekatzen dituela, halaxe izan da eta hala adierazi du. Hala eta guztiz ere, ordezkatzen duen aukera politikoak eta daukan aulkiak ez diote aukerarik ematen bere talde politikoaren bozeramaile izateko gai horretan, beraz, hitza bere taldekideari utziko dio.

* Bastos andreak (PP) adierazi du bere talde politikoa legea eta Konstituzioa betetzen dituen alderdia dela, eta xedapen horiek argi eta garbi esaten dutela espainiarrak eta monarkikoak direla, beraz, beren botoa, talde politiko gisa, mozioaren aurkakoa izango da.

* Peña andreak (EAJ/PNV) hitza hartu du adierazteko Monarkiari eta Errepublikari buruzko digresiotan sartu gabe, interesgarriak eta babesteko modukoak iruditzen zaizkiela mozio horretan adierazten diren zenbait printzipio. Izan ere, arlo politiko eta sozialeko etika, herritarren parte-hartze aktiboa, ahulak indartsuen mende ez egotea eta lanaren eta norberaren ahaleginaren emaitzak gorestea, babesteko moduko printzipioak dira. Atentzioa ematen die kontu batek eta proposamen bat egitera bultzatzen ditu, erabakitzeko eskubidearen eta herrien errealitatearekiko errespetua defendatzea, alegia. Ildo horretan, bere taldeak proposatuko du hirugarren puntu bat sar dadin, eskatzeko Konstituzioa aldatzeko herrien borondatea errespetatzeko. Proposamen hori onartzen ez bada, lehen aipatutako printzipioengatik, bere taldea abstenitu egingo da, baina berriro dio Euskadik herri gisa duen eskubidea aitortzen ez duen estatu-eredu oro EAJrentzat agortuta dagoen eta aldatu egin behar den eredua dela. Ulertzen du testuingurua, eta bere taldearen eskaera onartzen bada zer boto emango duten aurreratu du.

comparte como es conocido por todos aquí y en todos los foros, así ha sido y siempre lo ha manifestado. Sin embargo, la opción política a la que representa y la silla en la que está sentado no le permiten ejercer de Portavoz de su Grupo Político en este asunto, por lo que va a ceder la palabra a su compañera.

* Interviene la Sra. Bastos (PP) manifestando que su Grupo Político es un Partido que lo que hace es acatar la Ley y la Constitución, en la que se dice muy clarito que son españoles y monárquicos, con lo cual su voto, como Grupo Político, va a ser en contra de la moción.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) señalando que sin entrar en disquisiciones de Monarquía versus República, sí encuentran interesantes y dignos de apoyar los principios que se manifiestan en esta moción. Cómo no, la ética en lo político y en lo social, la participación activa de la ciudadanía, el que los débiles no se hallen sometidos a los fuertes y que se ensalcen los frutos del trabajo y del esfuerzo personal, son principios dignos de proteger. Hay una cuestión que les llama la atención que les invita a hacer una propuesta, se trata del reconocimiento que se hace a la defensa del derecho a decidir y el respeto a la realidad de los pueblos. En ese sentido su Grupo propondría que se incluyera un tercer punto en el que se instara la modificación de la Constitución para que se respete la voluntad de los pueblos. De no aceptarse esta propuesta, por los principios citados anteriormente su Grupo se abstendría, pero insiste en que todo modelo de Estado que no reconozca ese derecho de Euskadi como pueblo, es un modelo que para el PNV está agotado en el que deben trabajar para que se modifique. Entiende que el contexto es el que es y ya adelanta cual sería su voto en caso de no atenderse la petición de su Grupo.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

* Rodríguez jaunak (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak) testu hau irakurri du (gaztelaniaz): Aurkeztu den mozioaren aurrean, esan behar dugu testuaren azalpen-zatian adierazten diren funtsezko zenbait gaiekin ezin garela ados egon. Eskatzen digute Andaluzian hasi zen eta 38 udalerri atxikita dituen sare bati atxikitzeko. Euskaditik, Eibar, Pasaia, Tolosa eta Ondarroa daude. Egian, Eibarrek guretzat sinbolismoren bat izango du, herri horretan aldarrikatu baitzen II. Errepublika, 1931n. Aldarrikapen horren ondorengo urte guztietan, gizartearen bilakaerak monarkia parlamentarioa bezalako sistema politiko batera eraman gaitu. Errenteria, Gipuzkoa, Euskadi edo Espainiaren arazoak ez dira III. Errepublika aldarrikatuta edo III. Errepublikaren aldeko sare bateko kide izanda konponduko. Beste arazo batzuk ditugu, premiazkoagoak eta herritarren ongizaterako ardura gehiago eragiten digutenak (langabezia, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza...). Guretzat Errenteriarako lehentasuna da EUDEL Euskadiko Udalen Elkartean sartzea edo FEMP Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioan sartzea, han jorratzen eta konpontzen baitira benetan udalerrien arazoak, herritarren bizitza hobetzearren. Ezin dugu ulertu erakunde horietan ez egotea eta berri batean sartzeko asmoa izatea; gainera, erakunde horrek ezer gutxi egin dezake lehen adierazitako arazoak jorratu eta konpontzeko. Halaber, gure ustez udalak baditu egun jakin bat ospatzeko bitarteko eta tresnak eta erakunde-errespetuagatik, ez denez bandera ofiziala, bandera errepublikanoa ez litzateke balkoian jarri behar eta, are gutxiago, gainerako bandera ofizialen aldamenean, jarrita baldin badaude. Gainera, koherentziagatik eta arduragatik, talde guztiei gogorarazi nahi diegu alderdi guztiek bozeramaileen batzordean adostu genuen erabakia, alegia, protestako bandera edo pankartarik ez jartzea, aspaldidanik jartzen ziren batzuk izan ezik,

* Interviene el Sr. Rodríguez (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) dando lectura al siguiente texto: "Ante la moción que se nos presenta, hemos de decir que no podemos compartir determinadas cuestiones fundamentales que se manifiestan en la parte expositiva del texto. Se nos está pidiendo adherirnos a una red de municipios que se inicia en Andalucía y que cuenta con 38 adhesiones según me indican. En el País Vasco están Eibar, Pasaia, Tolosa y Ondarroa. Quizás en Eibar para nosotros tenga algún simbolismo por haberse proclamado en dicha ciudad la II República en 1931. En todos estos años posteriores a esa proclamación, la evolución social nos ha llevado a dotarnos de un sistema político que en democracia es una monarquía parlamentaria. Los problemas de Errenteria, de Gipuzkoa, del País vasco o de España no pasan por la declaración de la III República o por la pertenencia a una red de municipios por la III República. Los problemas son otros, más acuciantes y más preocupantes para el bienestar de los ciudadanos (paro, servicios sociales, educación,.......). Entendemos también prioritario para Errenteria su incorporación a la red de municipios vascos EUDEL o a la de municipios españoles FEMP que es donde verdaderamente se tratan y solucionan los problemas que se les plantea a los municipios en aras a mejorar la vida de la ciudadanía. No podemos entender que no estemos en estos organismos y nos planteemos uno nuevo que además poco o nada puede hacer para tratar y solucionar los problemas que antes indicábamos. Igualmente entendemos que el ayuntamiento tiene mecanismos y herramientas para la conmemoración de una fecha determinada y por respeto institucional entendemos que la bandera republicana, al no ser una bandera oficial, no debe ondear y menos junto al resto de banderas oficiales si las hubiese. Además por coherencia y responsabilidad, queremos recordar a todos los grupos, el acuerdo consensuado que

gure erakundea ez dadin esekitoki bat izan etengabe. Horregatik guztiagatik, gure taldeak ez du mozio hau babestuko.

tomamos todos los partidos en Junta de Portavoces, para no proceder a colocar banderas y/o pancartas reivindicativas, salvo unas determinadas que se venían realizando desde hace tiempo, entre otras cosas para que nuestra institución no sea un tenderete continuado. Por todo ello nuestro grupo no apoyará la moción que se nos presenta".

* Lopez de Echezarreta andreak (OE BILDU) euskaraz adierazi du EH BILDUk argi utzi nahi duela bere jardun politikoaren helburu nagusia Europan euskal errepublika bat, euskal estatu independente bat eratzea dela. Zergatik? Errepublikaren balioak bere egiten dituztelako estatu independente honentzat: askatasuna, berdintasuna, laikotasuna eta herriek beren buruaren jabe izateko duten eskubidea. Euskal errepublikaren aldeko adibide ugari ditugu eta gaurko mozioarekin nolabaiteko lotura bilatuaz, 1931. urtea ekarri nahi du gogora. Espainiako II. Errepublika ezarri berria zegoen, Espainiak ez zuen legez osatutako gobernurik, beraz, udaletxeak ziren indarrean zeuden gobernuko instituzio bakarrak. Horren inguruan, Mundaka, Getxo, Bermeo eta Elorrioko alkateak 1931ko apirilaren 17an Gernikara abiatu ziren manifestu bat aldarrikatzeko asmoz; horren bidez, marko politiko berri bat eskatzen zuten Euskal Herriarentzat, hain zuzen ere euskal errepublika eratzea. Beste behin ere agerian geratzen da zeinen garrantzitsuak diren herriak eta udalak eta zenbat lan eta aurrerapauso eman diren Euskal Herrian herrietatik, arlo lokaletik lortu eta bideratu direnak. Horretarako, eta udal-administrazioaren garrantziaz jabeturik, Asamblea de Municipios Vascos eta Udalbiltza bera aipatu nahi ditu, Euskal Herri osoko udalen bilgune izateko bokazioarekin jaiotako egitasmoak, lehenengoa 1931. urtekoa, eta bestea, aldiz, askoz ere berriagoa. Gaur aurkezten zaigun mozio honetan III. Errepublikaren alde lan egingo duten udalen sareko kide egitea proposatzen zaio Errenteriako Udalari,

* Interviene en euskera la Sra. Lopez de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que EH BILDU quiere dejar claro que el principal objetivo de su actividad política es la creación en Europa de una república vasca y un estado vasco independiente. ¿Por qué?, porque hace suyos los valores de la república para este estado independiente: libertad, igualdad, laicidad y el derecho a decidir de los pueblos. Tenemos muchos ejemplos a favor de la república vasca y, buscando de alguna manera similitudes con la moción de hoy, quiero traer a colación el año 1931. Se acababa de establecer la II. República de España, España no tenía ningún gobierno formado legalmente, por lo tanto, los ayuntamientos eran las únicas instituciones activas del gobierno. Referente a esto, los alcaldes de Mundaka, Getxo, Bermeo y Elorrio se dirigieron a Gernika el 7 de abril de 1931 con la intención de proclamar un manifiesto; en dicho manifiesto, solicitaban un nuevo marco político para Euskal Herria, la creación de la república vasca. Una vez más queda patente qué importantes son los pueblos y los ayuntamientos y cuánto trabajo y avances se han realizado en Euskal Herria desde los pueblos, desde el ámbito local. Para ello, y siendo conscientes de la importancia de las administraciones locales, quiere mencionar la Asamblea de Municipios Vascos y Udalbiltza, iniciativas creadas con vocación de ser punto de encuentro de ayuntamientos de toda Euskal Herria, la primera formada en 1931 y, la otra, mucho más recientemente. Con la moción que se nos presenta hoy, se propone la adhesión del Ayuntamiento de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

eta, hasieran esan bezala, beraiek Euskal Herriko sareak lehenesten badituzte ere, proposamen honekin bat egingo dute. II. Errepublikaren konstituzioan jasotako oinarriak haiek ere defendatzen dituzte, alegia, publikotasunaren defentsa, giza eskubideena, berdintasun soziala, independentzia judiziala, laikotasuna eta abar, eta bereziki, mozio honek herriek bere patuaren jabe izateko eta autodeterminaziorako duten eskubidea espresuki jasotzen duelako. Hori elementu oso inportantea da gaur onartzera doazen mozio horretan. Eta dudarik gabe, azken 80 urteetan estatu espainolean izan diren antolakuntza politiko desberdinen gainetik horrelako eredu bat nahi dute bizilagun ditugun herritarrentzat ere, azken finean erabakitzeko eskubidea eta justizia soziala oinarri izango dituen gizarte-eredu baten alde lan egiteko aukera.

* Mendoza alkate jaunak (OE BILDU) euskaraz adierazi du EAJ/PNVk proposamen bat egin duela eta proposamengileei galdetu die beren gain hartzen duten.

* Publikotik, Francisco Javier Álvarez Barral jaunak, Oarsoaldea eskualdeko “Pikoketa” Errepublikaren aldeko elkartearen ordezkaritzan, adierazi du ez dutela EAJ/PNVren proposamena onartzen eta mozioa proposatu den bezala bozkatzea nahi dute.

* Ferradás jaunak (Errenteriako Ezkerra) adierazi du pertsonalki sentitzen duela eta asko mintzen duela Alderdi Sozialistaren ordezkariaren mintzaldiak. Bistakoa da ikuspegi desberdinak dituztela, nahiz eta ulertzen duen Alderdi Sozialista ez dela asko arduratuko berak sentitzen duenagatik, baina uste du gehiago arduratu beharko lukeela bere militanteek mintzaldi hori entzun balute sentituko luketenagatik.

Errenteria a la red de ayuntamientos por la III. República, y, tal y como ha dicho al principio, aunque priorizan las redes de Euskal Herria, se unirán a esta propuesta. Ellos también defienden los principios recogidos en la constitución de la II. República, es decir, defensa de la publicidad, de los derechos humanos, igualdad social, independencia judicial, laicidad, etc. y especialmente, porque esta moción recoge expresamente el derecho que tienen los pueblos a ser dueños de su destino y su derecho de autodeterminación. Ese es un elemento muy importante de la moción que se va a aprobar hoy. Y, sin lugar a dudas, por encima de las distintas organizaciones políticas que ha habido en los últimos 80 años, también quieren un modelo así para nuestra ciudadanía, la opción de poder trabajar en aras a conseguir un modelo social cuyas bases serán el derecho a decidir y la justicia social.

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) señala en euskera que ha habido una propuesta por parte de EAJ/ PNV y pregunta a los proponentes si asumen la misma.

* Desde el público, el Sr .Francisco Javier Álvarez Barral en representación de la Agrupación Republicana de Oarsoaldea Pikoketa, señala que no asumen la propuesta de EAJ/PNV y desean que se vote la moción tal y como estaba propuesta.

* El Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) señala que siente personalmente y le molesta profundamente la intervención del representante del Partido Socialista. Evidentemente tienen visiones diferentes, aunque entiende que entre las preocupaciones del Partido Socialista lo que personalmente sienta ocupará un lugar pequeño, pero cree que más le debiera preocupar lo que seguramente sentirían muchos de sus militantes si hubieran escuchado esta intervención.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Amaitu dira mintzaldiak

Udalbatzak, aldeko 9 botoren gehiengoarekin (OE BILDU, Errenteriako Ezkerra), aurkako 8 botorekin (7 Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, 1 Bastos andrea-PP) eta 4 abstentziorekin (3 EAJ/PNV, 1 Herzog jauna-PP),

**E R A B A K I  D U**

Onartzea Oarsoaldea eskualdeko “Pikoketa” Errepublikaren aldeko elkarteak aurkeztutako eta Errenteriako Ezkerrak sinatutako mozioa, Errenteria “III. Errepublikaren aldeko udalen sarea”n txertatzea eta datorren apirilaren 14an bandera errepublikanoa jartzea eskatzekoa (gaiaren azalpenean jaso da).

----------

Jarraian.

Mintzatu dira:

* Mendoza alkate jaunak (OE BILDU) proposatu du, ez badago eragozpenik, eztabaida bakarra egitea gai-zerrendako 9 eta 10. puntuetarako.

* Rodríguez jaunak (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak) adierazi du berak ez duela inolako eragozpenik, baina mozioen aurretik azalpen bat egin nahiko luketela eta gai bat proposatu; testu hau irakurri du (gaztelaniaz): Alkate jauna, errespetu osoz, hau adierazi nahi dugu datozen puntuetako mozioen inguruan, eztabaida hasi aurretik, proposamen bat egin nahi baitizuegu. Beharrezkoa iruditzen bazaizue, geroko txandari uko egiteko prest gaude. Seriotasun eta ardura osoz, baina osasun demokratikoagatik, gure taldearen ustez ebazpen judizial bat betetzearen auzia ez da osoko bilkuran jorratu behar, alkatearen erabakia baita. Gure taldeari ez zaio gustatzen eta kritikatzeko modukoa iruditzen zaio gobernuaren ordezkariaren ekintza, arazorik ez

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 9 votos a favor (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra), 8 votos en contra (7 Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak, 1 Sra. Bastos-PP) y 4 abstenciones (3 EAJ/PNV, 1 Sr. Herzog-PP),

**A C U E R D A**

Aprobar la moción presentada por la Agrupación Republicana de Oarsoaldea "Pikoketa" y suscrita por Errenteriako Ezkerra, solicitando la incorporación de Errenteria a la "Red de municipios por la III República " y la colocación de la bandera republicana el próximo 14 de abril de 2014, que consta en la parte expositiva del presente asunto.

----------

Seguidamente.

Se producen las siguientes intervenciones:

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) propone, si no hay inconveniente, hacer un único debate para los puntos 9 y 10 del Orden del Día.

* Interviene el Sr. Rodríguez (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) manifestando que por su parte no hay ningún problema en ese sentido, pero desearían hacer una exposición previa a las mociones y proponer una cuestión, dando seguidamente lectura al siguiente texto: "Permítanos Sr. Alcalde con total respeto, manifestar lo siguiente al respecto de las mociones de los dos próximos puntos, antes de proceder a su debate, ya que también les vamos a realizar una propuesta. Incluso estamos dispuestos a renunciar a nuestro posterior turno de palabra si Vds. lo cree necesario. Con total seriedad y responsabilidad, pero igualmente por salud democrática, nuestro grupo entiende que esta cuestión de acatamiento de una resolución judicial no

dagoen lekuan arazo bila ibiltzekoa, baina esan behar dugu ez garela sartuko sortu nahi duzuen sinbolismo-antzerki honetan. Gure ustez, egungo egoeran, gure udalerriko krisi-egoerak enpresa txiki eta ertainei, merkataritzari eta familiei eragiten die; eskualdeko langabezi-tasa % 18koa da, herritarrei gizarte-zerbitzuak, oinarrizko errentak, hezkuntza edo osasuna bermatu behar zaizkienean, ezin dugu zuei soilik axola zaizkizuen sinbolismo-gerretan sartu. Ez dugu parte hartuko Bildu eta EAJk berpiztu nahi duten bandera-gerra honetan, berriz ere gainditutzat genituen eta gure taldearen lan-ildo diren elkarbizitza eta normalizazioa aztoratzen dituzten nortasun-gatazken garaietara itzultzea izango bailitzateke. Azpimarratzeko eta hausnartzeko datu gisa, gai horren inguruan eusko barometroak dio euskaldunen % 60 euskaldun bezain espainiar sentitzen dela; beraz, iruzurtiak aipatzen direnean, kontuz ibili behar da, era batera edo bestera gai horren inguruan manipulazio antzua egitea baita asmoa. Sinbolo guztiak errespetatu behar dira eta guztiek Konstituzioan dute jatorri demokratikoa, euskaldunen gehiengoak onartutako Konstituzioan, hain zuzen, eta lege hori bera da gaur zuei zinegotzi eta alkate izateko aukera ematen dizuena. Hala eta guztiz ere, alkate jauna, nire taldekideek eta nik gure elkartasuna helarazi nahi dizuegu, bai baitakigu ebazpen judizial hau bete behar izateak arazoren bat eragingo dizuela, eta ez kontzientziako arazoren bat soilik; baina karguak horretara behartzen zaituzte. Guk eskatzen dizuegu mahai gainean uzteko mozio biak eta naturalki eta normaltasunez betetzeko guztiok behartzen gaituen epai bat.

Jarraian adierazi du jakin nahiko lukeela proposamen hori onartzen den, gai horrekin aurrera jarraitu aurretik.

debe tratarse en pleno, ya que es una decisión exclusivamente del Alcalde. A pesar de que a nuestro grupo la misma no le gusta y de hecho vemos criticable la acción del Delegado de Gobierno de buscar problemas donde no existían, tenemos igualmente que decir que no vamos entrar en este teatro de simbolismos donde se nos pretende llevar. Entendemos que con la que está cayendo, la situación de crisis que padecemos en nuestro municipio que afecta a las pequeñas y medianas empresas, al comercio, a las familias y con un 18 % de paro en la comarca, con la ciudadanía en otras cuestiones como que se les garantice los servicios sociales, las rentas básicas, la educación o la sanidad, no podemos entrar en guerras de simbolismos que solo les preocupan a Vds. No vamos a participar en este resurgir de las guerras de banderas que Bildu y PNV quieren resucitar, ya que es volver a viejos tiempos de confrontación identitaria que creíamos superados y que solo crispan la convivencia y normalización en la que al menos nuestro grupo está trabajando. Como hecho destacable y para reflexionar el eusko barometro sobre este particular destacaba que el 60% de los vascos se sienten tan vascos como españoles, así que cuando se habla de imposiciones hay que tener cuidado ya que unos de una forma y otros de otra están intentando realizar manipulaciones estériles sobre el particular. Todos los símbolos están para respetarlos y todos ellos emanan democráticamente de la Constitución aprobada por la mayoría de los vascos y es por ejemplo la misma ley que les permite a Vds. ser hoy concejales y alcaldes. No obstante Sr. Alcalde, mis compañeros y yo, queremos trasladarle nuestra solidaridad, ya que sabemos que el tener que cumplir esta resolución judicial, para Vd. seguro que le traerá algún problema y no solo de conciencia, pero el cargo le obliga. Nosotros les pedimos que dejen encima de la mesa ambas mociones y

proceder de forma natural y normal al acatamiento de una sentencia judicial que a todos nos obliga". Continúa señalando que le gustaría saber si se acepta esta propuesta antes de avanzar en el este tema.

* López de Echezarreta andreak (OE BILDU) euskaraz adierazi du gero sartuko direla sakonago mozioetan, baina ezin dela hau gaur mahai gainean utzi, eta uste du oso argi daudela gai horren inguruko puntu gehienak eta hain zuzen ere udalbatza honetan eskatzen duela nolabaiteko esplikazio eta posizionamendu bat hartzea honekiko, eta horregatik ez dute egoki ikusten mahai gainean uztea.

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU) manifestando que luego entrarán más a fondo en las mociones, pero que no se puede dejar hoy esto sobre la mesa, cree que están muy claros la mayoría de puntos referentes a este tema, y que demanda a esta corporación una explicación y un posicionamiento respecto a este tema, y por eso no les parece apropiado dejarlo sobre la mesa.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du, eztabaida behar den lekuan jartzearren, hemen ez dutela eztabaidatu Espainiako bandera jarriko den ala ez, hemen adostuko dutena da Udalbatzaren adierazpen bat, Espainiako bandera jartzearen ingurukoa.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que por colocar la discusión en sus justos términos, aquí no van a discutir si se pone la bandera o no se pone la bandera española, aquí lo que vienen es a acordar una declaración de esta Corporación en torno a la colocación de la bandera española.

* Rodríguez jaunak (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak) adierazi du eskertzen diotela alkateari parte hartzeko aukera eman izana, baina gaineratu du ez dutela hurrengo puntuetan parte hartuko. Eztabaidak osoko bilkuren aretotik entzungo dituzte, haien eskuetan utziko dute beren ekintzen ardura edo arduragabekeria, eta espero dute horrekin ez apurtzea orain arte Errenterian nagusi den eta bere taldea urteetan mantentzen saiatu den elkarbizitza eta normalizazioa.

* El Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) señala que agradecen al Alcalde que les haya permitido intervenir, pero añade que no participarán en los próximos puntos. Escucharán los debates desde el Salón de Plenos, dejando en sus manos la responsabilidad o irresponsabilidad de sus acciones, esperando que con ello no se vea crispada la convivencia y normalización que hasta la fecha existía en Errenteria y que su Grupo a largo de los años ha intentado mantener.

* Herzog jaunak (PP) adierazi du jakina den moduan bere taldearen ustez Espainiako banderak Errenteriako Udalean egon behar duela, unean unekoa, orain hori delarik. Horrez gain, ez zaie inola ere ondo iruditzen bandera horrek egon behar duela deritzoten herritarrek beren nekearen emaitzarekin, zergekin, Legearen aurkakoa den plaka bat finantzatu behar izatea, beren ustearen aurka. Orain

* Interviene el Sr. Herzog (PP) manifestando que como es conocido, su Grupo piensa que la bandera de España debe ondear en el Ayuntamiento de Errenteria, la que sea en cada momento, en este momento ésta. Además, están radicalmente en contra de que ciudadanos que piensan que debe ondear tengan que costear con el producto de sus esfuerzos, de sus impuestos, una placa que va



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

alderdi sozialistak egin duen gauza bera egingo dute.

Amaitu dira mintzaldiak.

Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak eta PP taldeetako zinegotziek bileratik alde egin dute gaizerrendako 9. eta 10. puntuak eztabaidatu eta bozkatzeko garaian; publikoarentzako bankuetan eseri dira.

**9. BILDU eta Errenteriako Ezkerra taldeek aurkeztutako adierazpen instituzionala, Errenteriako Udalean Espainiako bandera jartzeko betebeharrari buruzkoa.**

Ondoko mozioa irakurri da:

2012ko ekainaren 1ean, Espainiako Gobernuko ordezkari Carlos Mª de Urquijo Valdivielso jaunak udal honi eskatu zion Udaletxeko balkoian Espainiako bandera jartzeko, Espainiako banderaren eta beste bandera batzuen erabilera arautzen duen 39/1981 Legean xedatutakoa argudiatuta.

Errenteriako Udalak eskaera bete ez zuenez, estatuaren abokatuak administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri zuen Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegian. Epaitegi horrek estatuaren abokatuaren eskaera ezetsi zuen, eta horrek errekurtsoa jarri zuen EAEko Auzitegi Nagusian. Momentu honetan, Udaletxe hau EAEko Auzitegi Nagusiaren notifikazioaren zain dago, non Espainiako bandera jartzea behartuko duen bai udaletxeko balkoian eta baita pleno aretoan ere.

contra la Ley, contra su opinión. Ahora van a hacer lo mismo que el Partido Socialista.

Finalizadas las intervenciones.

Los Concejales de los Grupos Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak y PP, se ausentan de la Sesión durante el debate y votación de los puntos 9 y 10 del Orden del Día, pasando a sentarse en los bancos del público.

----------

**9. Declaración Institucional presentada por los Grupos municipales BILDU y Errenteriako Ezkerra relativa a la obligación de la colocación de la bandera de España en el Ayuntamiento de Errenteria.**

Leída la siguiente moción:

"Con fecha 1 de junio de 2012, el Delegado del Gobierno Español, el Sr. Carlos Mª de Urquijo Valdivielso, requirió a este Ayuntamiento a que procediera a la colocación en el balcón del Ayuntamiento de la bandera española, aduciendo a tal efecto a lo dispuesto en la Ley 39/1981, por la que se regula el uso de la bandera de España y el de otras banderas.

Ante la inactividad del Ayuntamiento de Errenteria, el Abogado del Estado interpuso recurso contencioso – administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso – Administrativo nº 3 de Donostia San Sebastián. Este Juzgado desestimó la solicitud del Abogado del Estado, interponiendo este último un recurso ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. En estos momentos, este Ayuntamiento está a la espera de la notificación de la Sentencia del TSJPV, que obligará al Ayuntamiento de Errenteria a poner la bandera de España tanto en la fachada del edificio, como en el salón de plenos.

Egoera horren aurrean, Errenteriako udalbatzak adierazi nahi du kezkatuta dagoela Gobernuko ordezkariaren inposaketarekin, ez baitu inola ere kontuan hartzen Udabaltzaren borondatea eta, ondorioz, Errenteriako hiritarrena ere ez.

Ante esta situación, el Pleno del Ayuntamiento de Errenteria quiere mostrar su preocupación por la imposición del Delegado del Gobierno, que desoye completamente la voluntad de esta Corporación, y por ende, la de la ciudadanía de Errenteria.

1983ko uztailaren 22an, ikaragarrizko iskanbila sortu ondoren, Errenteriako Udalbatzako gehiengoak, herriko elkarteekin batera, erabaki zuen Udaletxeko fatxadako bandera guztiak kentzea, herrikoa eta ikurrina ere barne, herriko giroa asalda ez dadin. Eskaera horixe egin zitzaion hurrengo egunean orduko Gipuzkoako Gobernadore Zibil Julen Elgorriaga jaunari.

El 22 de julio de 1983, en medio de una enorme batalla campal, la mayoría de la Corporación del Ayuntamiento de Errenteria, junto con las asociaciones del pueblo, alcanzaron un acuerdo que consistía en quitar todas las banderas de la fachada del Consistorio, incluidas la local y la ikurriña, a fin de evitar la crispación en el municipio. Dicha solicitud fue realizada un día después al entonces Gobernador Civil de Gipuzkoa, el Sr. Julen Elgorriaga.

Gobernadore zibilak ez zuen irizpide hori onartu, baina irizpide horixe erabili izan da orain arte, hainbeste urtetan, ulertzen zelako hori zela gizartea bakean egoteko modurik onena.

Ese criterio entonces no atendido por el Gobernador Civil, ha sido no obstante, por la vía de los hechos, el criterio utilizado a lo largo de todos estos años, por considerar que era la mejor forma de mantener una paz social.

Orain, orduan bezalaxe, kanpoko eragile bat da - Gobernuko ordezkaria- herri honetako errealitatea batere ezagutu gabe eta gehiengoaren borondateari entzungor eginda, inposaketaren bidez, ondorioak kontuan hartu gabe, Udaletxeko fatxadan Espainiako bandera jartzera behartzen gaituena. Gainera, neurri hori ez dator bat itxaropeneko eta elkarbizitzako aro politiko berriarekin, guztion praktikak sumina eta inposaketak saihestera zuzendu behar baititugu.

Ahora, como entonces, es un agente externo – el Delegado del Gobierno -, el que desconociendo completamente las realidades de este pueblo, y desoyendo la voluntad de una mayoría, pretende por la vía de la imposición, sin importarle sus conscuencias, obligar a poner la bandera de España en la fachada del Consistorio. Esta medida no se ajusta además al nuevo tiempo político de esperanza y convivencia, donde las prácticas de todos y todas deben de ir dirigidas a evitar situaciones de crispación e imposición.

Udalbatzaren ustez, udal honetan demokratikoki adierazitako gehiengoek erabaki behar dituzte irizpideak eta jarduerak. Hartara, adierazi nahi dugu ez gaudela inola ere ados eta guztiz gaitzesten dugula Udalbatzaren borondatearen gainetik inposatzen duten neurri oro.

El Pleno de esta Corporación considera que son las mayorías democráticamente expresadas por este Ayuntamiento las que han de regir los criterios y las actuaciones a llevar a cabo. Es por ello, por lo que mostramos nuestra más absoluta disconformidad o rechazo a toda medida que venga impuesta por



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

encima de la voluntad de esta Corporación.

Adierazitakoagatik guztiagatik, Errenteriako Udaleko Udalbatzak hau azaltzen du:

1) Errenteriako Udalak adierazten du ez dagoela ados eta guztiz gaitzesten duela Udaletxeko fatxadan eta osoko bilkuren aretoan Espainiako bandera jartzeko inposaketa, Errenteriako herritarren gehiengoaren borondatearen aurkakoa delako.

2) Errenteriako Udalaren ustez, egitate horiek bereziki larriak dira egungo testuinguru eta momentu politikoan. Testuinguru honetan konponbideen etorkizuna -eta ez inposaketena- laguntzen duten jarrerak behar ditugu.

3) Errenteriako Udalak erabaki du plaka bat jartzea Udaletxearen sarreran, honako inskripzio honekin:

> ***Udalbatzak 2014ko martxoaren 25eko osoko bilkuran adierazitako borondate demokratikoaren aurka, Espainiako bandera jarri da, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 687/2013 epaia betetzeko; hau dio epaiak:***
>
> ***ERRENTERIAKO UDALA BEHARTUTA DAGO ESPAINIAKO BANDERA UDALETXEAREN KANPOALDEAN ETA OSOKO BILKUREN ARETOAN JARTZERA ETA EDUKITZERA***

4) Errenteriako Udalak erabaki du akordio hau Errenteriako gizarte-eragileei helaraztea, egoki baderitzote adierazpena babestu dezaten.

Hauek mintzatu dira bi adierazpen instituzionalen

Expuesto cuanto antecede, el Pleno del Ayuntamiento de Errenteria manifiesta lo siguiente:

1) El Ayuntamiento de Errenteria muestra su disconformidad y absoluto rechazo a la imposición de poner la bandera española en la fachada y en el salon de plenos del Consistorio, toda vez que va en contra de la voluntad de la mayoría de la ciudadanía de Errenteria.

2) El Ayuntamiento de Errenteria considera que estos hechos son especialmente graves en el contexto y en el momento político en el que se desarrollan. Contexto que necesita de actitudes que faciliten un futuro de soluciones y no de imposiciones.

3) El Ayuntamiento de Errenteria acuerda poner una placa en la entrada del Consistorio manifestando lo siguiente:

> ***En contra de la voluntad democrática expresada por esta Corporación en el Pleno de 25 de marzo de 2.014, se coloca la bandera española en cumplimiento de la Sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco nº 687/2013 que dice lo siguiente:***
>
> **"DECLARAR LA OBLIGACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DE COLOCAR LA BANDERA DE ESPAÑA DE FORMA PERMANENTE EN EL EXTERIOR DEL EDIFICIO CONSISTORIAL Y EN EL SALÓN DE PLENOS DE LA MISMA"**

4) El Ayuntamiento de Errenteria acuerda trasladar el presente acuerdo a los agentes sociales de Errenteria, a fin de que si así lo estimaren muestren su apoyo a la presente declaración."

Se producen las siguientes intervenciones que sirven



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

inguruan (gai-zerrendako 9 eta 10. puntuak).

para las dos Declaraciones Institucionales, (puntos 9 y 10 del Orden del Día).

* Ferradás jaunak (Errenteriako Ezkerra) adierazi du konponduta zegoen gai batean, alegia, alderdi sozialistak adierazi duen moduan, banderarik ez edukitzea, Gobernuaren ordezkariak arazo bat sortu duela bandera jakin bat inposatuta. Bistakoa denez, errenteriarren arduretan ez zegoen zein bandera jarriko zen edo ez zen jarriko, besteak beste, 1983ko uztailean erabaki egokia hartu zelako bere ustez, horrelako sinbolorik ez edukitzea, banaketarik edo istilurik ez eragiteko. Beraz, erabaki judiziala badago, baina argi dago erabaki politikoa dela eta Gobernuaren ordezkariaren eskutik datorrela, baina bai eta PPk gai horretan duen jarreraren eskutik ere. Horregatik guztiagatik, Ezker Anitza-Izquierda Unidak ez du bandera-gerretan parte hartuko, bigarren mailan uzten baitituzte herritarrak benetan arduratzen dituzten gaiak, adibidez, langabezia, etxegabetzeak edo bestelako gaiak, baina guztiz gaitzesten dute alderdi politiko baten hauteskunde-ikuspegitik soilik uler daitekeen inposatze hori. Hori dela-eta, beren ustez, horrelako epaiak betetzeak ez du eragin behar udalbatzak azkenaldian lortu duena alde batera uztea, alegia, Errenteria garai politiko ireki berriaren sinbolo izatea. Horregatik, espero dute inposatze horrek ez eragitea zatiketarik edo istilurik; beren esku dago, eta ziur dago guztien artean egoera horiek saihestuko dituztela.

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que donde había una solución, apuntada por el Partido Socialista, como era el que no ondeara ninguna bandera, el Delegado del Gobierno ha creado un problema, que es la imposición de una bandera concreta y determinada. Evidentemente, en la lista de preocupaciones de los vecinos y vecinas de Errenteria, en este momento no estaba la de qué bandera ondeaba o dejaba de ondear, entre otras cosas porque en julio de 1983 se tomó, a su entender, una acertada decisión y una solución por la que este tipo de símbolos no ondearan, para no generar precisamente división ni confrontación. Por tanto, lo que pueden señalar es que hay una decisión judicial pero que evidentemente corresponde a un impuslo político y que ese impulso político viene de la mano del Delegado del Gobierno, pero viene también de la mano de la actitud del PP en esta cuestión. Por todo ello, Ezker Anitza - Izquierda Unida no va a participar en guerras de banderas que pongan en segundo plano cuestiones que entienden que sí preocupan a la ciudadanía, como pueden ser el paro, los desahucios u otro tipo de cuestiones, pero evidentemente rechazan una imposición que solo se puede entender desde una lógica electoral de un partido político concreto. Por eso, entienden que el cumplimiento de sentencias de este tipo no les debe llevar a desviarse de algo que ha conseguido esta Corporación en estos tiempos, que es convertir a Errenteria en símbolo del nuevo tiempo político abierto. Por esto esperan que esta imposición no genere ni división, ni confrontación, está en sus manos, y está convencido de que entre todos y todas evitarán esas situaciones.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du errealitate bat

* Interviene la Sr. Peña (EAJ/PNV) manifestando que

adierazi nahi duela, pena dela egoera horretan egotea, batez ere, bere ustez, ez baitu osoko bilkuren areto horretan dagoen inork eragin. Ondoren, eta eztabaida bakarra denez 9 eta 10. puntuetarako, akta honen 10. puntuan dagoen mozioa irakurri du. Jarraian, adierazi du bere taldeak nahiz Ezker Anitzak eta Bilduk aurkeztutako mozioen alde bozkatuko dutela, funtsezko bi arrazoirengatik: lehenengo, ez daudelako prest onartzeko Espainiako Gobernuaren ordezkariak hemen Udalbatzaren eskumenekoak diren gaietan inposatzeak egin ditzan eta Udalbatzaren borondatearen gainetik egin ditzan. Ildo horretan, Bilduk eta Ezker Anitzak aurkeztutako mozioaren alde bozkatuko dute. Hala eta guztiz ere, beren ustez, ezin da alde batera utzi ez dela edonolako inposatzea, uste dute Espainiako bandera jartzeak inposatze hutsak eta Udalbatzaren gehiengoaren borondatearen gainetik pasatze hutsak baino garrantzi askoz ere handiagoa dutela. Espainiako bandera jartzeko inposatze horrekin eta sinbolo horren atzean dagoenarekin, bere ustez, lortu nahi dena mezu argia da, Espainiako Estatuak ez duela Euskadi herri gisa aitortzen, ez eta horrek erabakitzeko duen eskubidea ere, eta mendean hartu nahi duela. Beren ustez euskal gatazkaren konponbidea ez da etorriko horrelako jokaera eta inposatzeekin, akordioak lortzeko borondatearekin, elkarrizketarekin eta aske eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea aitortuta baizik. Ildo horretan, adierazi behar du erabakitzeko eskubidearen defentsa eta errebindikazioa EAJren DNAn dagoela, beren ustez ikurrina da proiektu komun hori irudikatzen duena eta Udaletxearen balkoian ikusi nahi duten sinboloa, ez besterik. Ezin du ahaztu zenbat sufrimendu eragin den eta zenbat bizitza geratu diren bidean urteetan, ikurrina defendatzeagatik Espainiako bandera beharrean, ez liokete haien izenari ohore egingo ez balukete abagune hau baliatuko mahai gainean jartzeko.

quiere constatar una realidad, es una pena que se produzca esta situación, sobre todo porque a su entender no ha sido provocada por ninguno de los que están presentes en el Salón de Plenos. Seguidamente y puesto que el debate es único para los puntos 9 y 10, da lectura a la moción que consta en el punto número 10 de la presente acta. Continúa señalando que votarán a favor tanto de la moción que presenta su Grupo, como de la presentada por Ezker Anitza y Bildu, por dos motivos fundamentales, el primero es que no están dispuestos a admitir ningún tipo de imposición, no están dispuestos a admitir que el Delegado del Gobierno Español venga a imponer cuestiones sobre las que esta Corporación tiene absoluta competencia y que se haga por encima de la voluntad de la misma. En ese sentido van a votar a favor de la moción que presentan Bildu y Ezker Anitza, sin embargo también consideran, y no pueden huir de ello, que no es una imposición cualquiera, creen que el colocar la bandera española tiene una trascendencia muy superior a lo que es la mera imposición y pasar sobre la voluntad de la mayoría de la Corporación. Lo que se trata con esta imposición de la colocación de la bandera española y lo que está detrás de este símbolo, a su entender, es un mensaje claro y es que el Estado Español no reconoce a Euskadi como Pueblo, ni su derecho a decidir y lo que pretende es su sometimiento. Entienden que la solución al conflicto vasco no viene de este tipo de actuaciones e imposiciones, sino de la voluntad de acuerdos, del diálogo y del reconocimiento al derecho a decidir de manera libre y democrática. En ese sentido tiene que manifestar que la defensa y reivindicación del derecho a decidir impregna el ADN del PNV, entienden que es la ikurriña la que representa este proyecto común y el símbolo que quieren ondee en este balcón consistorial y no otro. No pueden olvidar cuantos han sido los sufrimientos y las vidas sesgadas a lo largo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Jarraian, BILDUri zuzenduta zerbait esatera doa; bere ustez agian ez dute gustukoa izango, baina ez baluke esango, ez litzateke zintzoa izango bere buruarekin, bere taldearekin edo bere alderdiarekin. Gainera, ziur dago pausoak ematen ari direla. Izan ere, ikurrinagatik sufritu zuten pertsona guztiak ahaztu ezin dituzten bezalaxe, ezin da ahaztu ezker abertzaleak duela gutxira arte izan duen jarrera; presioak, mehatxuak, irainak jaso dituzte, adibidez, EAJ espainiarra, eta are larriagoak. Orduan, ezker abertzaleak desobedientzia zibilera deitzen zuen, eta hala ez egiteagatik, bere taldeari leporatzen zioten aipatu berri duena; baina bizitza horrelakoa da eta orain iritsi da eguna, BILDUk ardura instituzionalak ditu, men egin behar du eta Espainiako bandera jarri behar du udaletxean. Ez du pozik esaten, inola ere ez, ez diote harria itzuliko, arduraz jardun nahi du, uste du guztiek ikasi behar dutela iraganetik, inori ez zaio gustatzen eta adierazi nahi du berak ordezkatzen duen alderdia Espainiako bandera jartzearen aurka dagoela guztiz. Amaitzeko, euskaraz adierazi du lehen esan duen moduan bere taldeak aurkeztu duen mozioaren alde bozkatuko dutela, bai eta Ezker Anitzak eta BILDUk aurkeztutako mozioaren alde ere.

de los años por defender la ikurriña frente a la bandera española y no harían honor a su nombre si no aprovecharan esta ocasión también para ponerlo encima de la mesa. A continuación va a decir algo dirigido a BILDU, entiende que quizá no haga gracia escucharlo, pero no sería honesta consigo misma, ni con su Grupo, ni con su Partido, si no lo dijera y lo hace desde el convencimiento de que se están dando pasos y es que, al igual que no pueden olvidar a todas aquellas personas que sufrieron por la ikurriña, tampoco pueden olvidar esa postura que ha tenido hasta hace relativamente poco tiempo la Izquierda Abertzale, las presiones, las amenazas, los insultos que han recibido, tales como PNV español y otros más graves. Entonces, la Izquierda Abertzale llamaba a la desobediencia civil, y por no hacerlo, a su Grupo le achacaban de lo que acaba de mencionar, pero la vida es así y hoy ha llegado el día en que BILDU está en responsabilidades institucionales, tiene que acatar y tiene que poner la bandera española en el Ayuntamiento. No ve esto con regocijo ni muchísimo menos, no van a devolver la piedra, quieren actuar con responsabilidad, cree que todos deben aprender del pasado, no es plato de gusto para nadie y quiere manifestar que el poner la bandera española se hará con la oposición frontal del Partido al que representa. Finaliza señalando en euskera que como antes ha dicho, votarán a favor de la moción que su Grupo ha presentado y también de la moción presentada por Ezker Anitza y BILDU.

* López de Echezarreta andreak (OE BILDU) euskaraz adierazi du bi mozio aurkeztu direla. Beraiek ere bien alde bozkatuko dute. Bi mozio horiek zati dispositiboan oso antzekoak dira puntuei dagokienez; badago laugarren puntu bat beraienean gehitzen duena nolabait plenoan hartzen den erabakien berri eragile desberdinei helaraziko zaiela eta egia da parte espositiboan edo hasierakoan daudela pixka bat diferentziak. Beren kasuan,

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (O.E. BILDU), manifestando que se han presentado dos mociones. Ellos también votarán a favor de las dos. Las dos mociones son muy parecidas en la parte dispositiva; la suya añade algo en un punto, estableciendo que se dará cuenta de lo decidido en el pleno a los agentes, y es verdad que la parte del principio o la expositiva es algo distinta. En su caso, quieren que su declaración institucional vaya más



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

nolabait beren adierazpen instituzionala identitate-sentimendutik baino haratago joatea nahi izan dutela eta eztabaida esparru demokratikoan kokatzen saiatu direla. Eta, horregatik, berak ere pena handia hartu du ez daudelako gainerako kideak mahai honetan eserita, hain zuzen ere 83az geroztik nolabaiteko adostasunean erabaki zelako udaletxe honetan ez zedila egon inolako banderarik, hain zuzen ere kontsentsu eta elkarlanerako edo elkarbizitzarako aukera on bezala. Eta berak oso argi dauka beraiek honekin ez dutela antzerki bat egin nahi, eta agian gaur ari dira antzerkia egiten, edo kontrakoa. Ez dago zalantzarik inposizio honek baduela helburu politiko oso-oso jakin bat, eta horrekin jokatu beharko dute segur aski Espainiak baduelako kezka handi bat Euskal Herriaren subiranotasun-aukerei begira eta benetan konturatzen delako herri honetan pauso garrantzitsuak ari direla ematen gure autonomiari bide emateko, eta iruditzen zaie horren beldurra dela horrelako ekintzak egitera bultzatzen dituena. Berak uste du Maitek gauza inportanteak esan dituela. Bere ustez, EH BILDU udalbatza honetan egoteak esan nahi du aniztasun-politiko handi bat ordezkatzen duen talde bat dagoela, eta horrek adierazten du bide inportante bat egina dagoela eta uste du hori balioan jarri behar dela. Espero du denok edukitzea geroz eta gehiago aurrera begiratzeko gaitasuna, eta nazio - eraikuntzan gure identitatearen lanketa horretan bidelagun izan badaitezke, ezin hobeto. Horregatik, beraiek ere bi mozioak babestuko dituzte, biek badutelako nolabait koherentzia eta zentzu handia.

allá del sentimiento identitario y han intentado enmarcar el debate en el ámbito democrático. Y por ello, ella se ha apenado mucho debido a que el resto de miembros no estén en la mesa, ya que en el 83 acordaron no colocar ninguna bandera en este ayuntamiento, precisamente como una buena opción para el consenso y la colaboración o la convivencia. Y ella tiene muy claro que ellos no quieren hacer ningún teatro, y tal vez hoy aquí se esté haciendo teatro, o lo contrario. No hay ninguna duda de que estas imposiciones políticas tienen un objetivo político concreto, y probablemente tendrán que jugar con eso, porque España está muy preocupada por las opciones de soberanía de Euskal Herria y porque realmente se da cuenta de que en este pueblo se estén dando pasos importantes de cara a conseguir la autonomía, y les parece que es ese miedo el que les empuja a realizar acciones de este tipo. En su opinión, Maite ha dicho cosas importantes. El que EH BILDU esté en esta corporación significa que hay un grupo que representa una gran diversidad política, y eso muestra que se ha recorrido un largo camino, y opina que hay que darle valor a eso. Espera que todos tengamos cada vez mayor capacidad de mirar hacia adelante, y si pueden ser compañeros de viaje para forjar nuestra identidad en la construcción nacional, mejor que mejor. Por ello, ellos también apoyarán las dos mociones, porque las dos tienen mucha coherencia y sentido.

* Mendoza jauna alkateak (OE BILDU) euskaraz adierazi du hitz batzuk esan nahi dituela, berari tokatzen zaion parteagatik. Zalantzarik gabe erabakia alkatearena da, eta inork ez du ukatu. Eta EAJko bozeramaileak esan duenaren harira, hemen ez dira erabakitzen ari bandera jartzea edo ez jartzea, baizik inposaketa horri deklarazio politiko baten bitartez erantzutea edo ez erantzutea. Gaztelaniaz jarraitu du

* Interviene el Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) manifestando en euskera que quiere decir unas palabras, por la parte que le toca. Sin lugar a dudas, la decisión corresponde al alcalde, y eso nadie lo ha negado. Y al hilo de lo comentado por la portavoz del PNV, aquí no se está decidiendo si poner o no la bandera, sino de responder a esa declaración con una declaración institucional o no. Continúa en

eta adierazi du garrantzitsua dela eztabaida kokatzea, han komentatu dena partekatuko baitu; pertsonalki, pena ematen dio, eztabaida politiko batez ari direlako, udal honetan egin daitezkeen gainerako eztabaida politikoez aritzen diren bezalaxe. Hemen inor ez da epai judizialak ez betetzera dei egiten ari, eztabaidatzen ari garen mozioei dagokienez gutxienez, bere taldean horren inguruan izan dezaketen iritzia edozein delarik ere (aurrerago azalduko du iritzi hori). Mozioak kontu argi bati buruz ari dira, eztabaida argia da, uste du mozioek eztabaida baldintza demokratikoetan planteatzen dutela eta uste du eztabaida hori naturaltasun osoz egin beharko litzatekeela, inolako konplexurik edo arazorik gabe pleno-areto honetan, talde politiko guztiak beren eserlekuetan daudela. Baina hori bada alde egin duten bi talde politikoen erabakia, ez du onartu beste aukerarik, baina ez dago ados, bere ustez, beste edozein eztabaidetan bezalaxe, hau ere foro honetan egin behar baita, osoko bilkuren aretoan. Beste gauza bat komentatu nahi du, Alderdi Sozialistak baitio BILDU eta EAJ/PNVk gerra horretan sartu nahi dutela, baina beraiek ez dira sartu gerra horretan, alderantziz baizik. Hemen de facto egoera bat zegoen eta mantendu egiten zen, talde sozialistak ere mantendu du aurreko legegintzaldietan, hain zuzen banderarik ez jartzea, eta beraiek ez dute ikurrina edo beste banderarik jarri, Gobernuaren ordezkaria izan da baizik esan diena zein bandera jarri behar duten udaletxearen fatxadan. Oso gutxi arduratzen da gainerakoez, baina Espainiakoa jartzeaz arduratzen da, ez baitie aipatu gainerakoak ez daudela jarrita, esan die Espainiakoa jartzeko udaletxeko fatxadan. Orduan, esaten denean hau ez dela inposatzea, epai judiziala dela, bete egin behar dela, legeak bete egin behar direla, ulertzen du nortasun-sentimenduek ez dietela inposatzeei edo legeen ondoriozko men egiteei erantzuten. Nortasun-sentimenduak norberarenak dira, kasu honetan udal

castellano señalando que es importante situar el debate en esos términos porque va a compartir lo que se ha comentado allí, personalmente si que le da cierta pena porque están hablando de un debate político,  igual que el resto de debates políticos que se puedan dar en este Ayuntamiento. Aquí nadie está planteando, al menos en las mociones que se están debatiendo, la desobediencia a las sentencias judiciales, con independencia de la opinión que en su Grupo puedan tener sobre esto, que ya lo comentará más adelante. Las mociones hablan de una cuestión clara, es un debate nítido, cree que las mociones incluso plantean el debate en términos democráticos y cree que ese debate se debiera dar con absoluta naturalidad, sin ningún complejo y sin ningún problema en este salón de Plenos con todos los Grupos Políticos presentes en sus asientos. Pero bueno, si esa es la decisión de los dos Grupos Políticos que se han ausentado, no puede más que asumirla, pero no compartirla, porque considera que como cualquier otro debate, éste también se tiene que dar en este foro que es el Salón de Plenos. Quiere comentar alguna otra cuestión, porque desde el Partido Socialista se dice que esta es una guerra en la que les quieren meter BILDU y EAJ/PNV, cuando en esta guerra no han entrado ellos, justamente todo lo contrario. Aquí había una situación de facto que se estaba manteniendo, incluso por el Grupo Socialista en otras legislaturas, de no poner ninguna bandera y no han sido ellos quienes han venido a poner la ikurriña o a poner otra bandera, sino que ha sido un Delegado del Gobierno quien ha venido a decirles cual es la bandera que tiene que ondear en la fachada de este Ayuntamiento. Se preocupa muy poco de las otras, de lo que sí se preocupa es de poner la española, porque poco les ha dicho que las otras no están puestas, les ha dicho de poner la española en la fachada del Ayuntamiento. Entonces, cuando se dice



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bakoitzarenak, eta, momentu honetan, udal honek erabakita zeukan banderarik ez jartzea, eta uste du hori errespetatu egin behar dela gobernuko delegatu batek ezin duela esan zein den gai honetan hartu beharreko politika; ez zaio iruditzen legeek herri-borondatearen gainetik egon behar dutenik ere. Pertsonalki, uste du horrek erakusten duela ahultasun ikaragarria eta Estatuak bertigo eta beldur politiko ikaragarria duela jada abian den prozesu soberanistaren inguruan, aspalditik datorren sentimendua dela herri baten parte sentitzea, ez dela sentimendu hori desagerrarazterik lortu eta asmoa dela horrelako inposatzeekin lortzea. Pertsonalki, uste du hau beste neurri bat dela, Estatuak, kasu honetan Espainiako Gobernuak, hartzen dituen horietakoa, legeek eta auzitegiak erabilita aplikatu arazteko, eta uste du bide okerra dela, horrek ez baitu nortasun-sentimendurik geldiaraziko. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua iruditzen zaio eztabaida non dagoen kokatzea, aurkeztutako mozioa, gutxienez bere taldeak eta Ezker Anitzak aurkeztutakoa, ez baita nortasun-kontuei buruzkoa, beste gai batzuei dagokie, eta hori aipatzea garrantzitsua da, bere ustez, baldintzak horiek direla kontuan izanda guztiek egon ahal izango baitzuten eztabaida horretan, planteatzen dena baita orain arteko irizpide bera mantentzea. Alegia, proposatzen dutena da Alderdi Sozialistak orain arte egin duena, gutxienez azken legegintzaldietan egin duena. Proposamena irizpide demokratiko batetik egiten dute, Udalak erabaki dezala zer egin behar duen eta zer ez, bere herriaren beharren eta errealitateen arabera. Horiek dira baldintzak, eta, lehen esan dudan moduan, argiak dira eta ez dira sartzen nortasun-kontuetan, ez dute bandera-gerra batean sartu nahi, eztabaida demokraziaren eta osoko bilkuren areto honetan demokratikoki adierazitako borondateak errespetatuta planteatu nahi dute. Agian, norbaiti paradoxikoa irudituko zaio gaurko plenoan Bilduko

que esto no es una imposición, que es una sentencia judicial, que hay que acatarla, que las Leyes hay que acatarlas, entiende que los sentimientos identitarios no responden a imposiciones o a obediencias que puedan venir de unas Leyes. Los sentimientos identitarios son propios de cada una de las personas y de cada uno de los consistorios, en este caso y en este momento este consistorio optaba por no poner ninguna bandera y cree que es una cuestión que debe respetarse y que ningún Delegado del Gobierno puede venir aquí a decir cual es la política que debieran adoptar sobre este asunto, ni tampoco considera que las Leyes puedan estar por encima de las voluntades populares. Esto lo dice porque personalmente cree que lo que esto denota es una enorme debilidad y un enorme vértigo y miedo político por parte del Estado a un proceso soberanista que ya está en marcha, que hay un sentimiento de pertenencia a un pueblo que viene de muchos años atrás, que no se ha conseguido eliminar y que se pretende eliminar con imposiciones de este tipo. Personalmente cree que es otra más de esa serie de medidas que se vienen adoptando por parte del Estado, en este caso del Gobierno Español con las Leyes e incluso con los tribunales que obligan a aplicarlas, y que cree que va a errar en el camino porque eso no va a frenar ningún sentimiento de pertenencia ni identitario. No obstante cree que es importante situar dónde está el debate, porque en la moción que se presenta, al menos en la presentada por su Grupo y Ezker Anitza, no se sitúa en cuestiones identitarias sino de otro orden, esto es importante mencionarlo, porque cree que en esos términos, en este debate podrían haber estado todos, porque lo que están planteando es mantener el mismo criterio que se había mantenido hasta la fecha. Es decir, lo que están proponiendo es lo que el Partido Socialista ha estado practicando a lo largo de todos sus años de legislatura, al menos en las



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

kideek Errepublikaren aldeko adierazpen instituzional baten alde bozkatu izana eta planteatu izana balkoian Errepublikako bandera jar dadin eta kasu honetan Espainiako banderaren inposatzearen alde ez egiteko. Argi dio zergatik, batek herria errespetatzen du, eta besteak ez, hori da bandera batek irudikatzen duenaren eta besteak irudikatzen duenaren arteko diferentzia; bere ustez, Errepublikako banderak herrien eskubideak errespetatzea sinbolizatzen du eta Espainiakoak, aldiz, herri baten eskubideak guztiz ukatzea. Ildo horretan, bere ustez, beren jarrera oso koherentea eta Estatuko gainerako herriekin oso solidarioa. Euskaraz jarraitu du, adieraziz azken aipamen bat egiteko, hemen errespetu guztiarekin esan dela, baina berak ere errespetu guztiarekin erantzungo diola EAJ/PNVk aipatu duenari. Gauzak ez dira nahastu behar, banderarekin egon daitekeena eta gatazka armatuarekin egon dena banatu egin behar dira, gutxienez debate bakoitzean, eta horrek ez du esan nahi ez dutenik hitz egin behar; hitz egingo dute hitz egin behar dutenean. Ez zaio egokia iruditzen momentu honetan hori ateratzea eta ez du beldurrik ere debate horretarako, momentu askotan erakutsi baitute debate horri heltzeko inongo beldurrik ez dutela eta heltzen diotela. Hori batetik. Bestetik, desbedientzia zibilaren alorrean, beren bizkarhezurra izaten jarraitzen du. Desobedientzia zibila BILDUren ekintza politikoaren bizkarhezurra da eta izaten jarraituko du, uste dutelako beste borroka-molde batzuekin batera, instituzionalarekin batera eta abar, prozesu soberanista batean ezinbesteko elementua ere badela. Desberdintasuna da baldintza objektiboak ematen diren edo ez desobedientzia zibil hori aplikatzeko eta, momentu honetan, beren ustez, baldintza objektibo horiek egun ez dira ematen. Baina oso erraza da, baldintza objektiboak ematen dira, akordio politiko batera iristen badira gutxienez PNV eta BILDU, eta beste batzuk ere bai, desobedientzia

últimas legislaturas. Lo que plantean lo hacen desde un criterio democrático, que este Ayuntamiento decida lo que tiene que hacer y lo que no, en función de las necesidades y las realidades de su pueblo. Esos son los términos, como decía antes nítidos, que no entran en cuestiones identitarias, que no pretenden entrar en una guerra de banderas, sino que pretenden situar el debate en términos exclusivamente democráticos y de respeto de voluntades expresadas democráticamente en este Salón de Plenos. Quizás alguno pueda considerar paradójico que en el Pleno de hoy los Corporativos de Bildu hayan votado a favor de una declaración institucional de la República, e incluso planteen poner la bandera republicana en el balcón y sin embargo, en este caso no opten por la imposición de la bandera española. Dice claramente el por qué, en una se respeta a un pueblo y en la otra no, es la gran diferencia que existe entre lo que simboliza una bandera y lo que simboliza otra, entiende que la republicana simboliza el respeto a los derechos de los pueblos, y en el caso de la española lo que simboliza es la negación absoluta a los derechos de un pueblo. En ese sentido cree que su posición es muy coherente y muy solidaria incluso con el resto de pueblos del Estado. Continúa en euskera respondiendo a la portavoz del PNV que, como último apunte, aquí se ha hablado con todo el respeto, pero que él también responderá con todo el respeto a lo dicho por EAJ/PNV. No hay que mezclar las cosas, hay que separar lo que puede haber con la bandera y lo que ha habido con el conflicto armado, y eso no quiere decir que no deban hablar; lo hablarán cuando tengan que hablarlo. No le parece apropiado sacar en este momento ese tema y no tiene miedo a ese debate, muchas veces han mostrado que no tienen ningún miedo de entrar en ese debate y que, de hecho, entran en ese debate, eso por un lado. Por otro, en lo que a la desobediencia civil se refiere,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

egiteko egoera honen aurrean. Eta berak, alkate bezala, ez du arazorik horrelako marko baten barruan, horrelako erabaki nazional baten barruan, desobedientziari heltzeko. Zalantzak ditu guztiok logika berean dauden. Berak ez dauka inolako arazorik, baldintza objektiboak ematen direnean ez du arazorik desobedientzia zibilaren bideari heltzeko. Bai hemen eta bai beste edozein kasutan. Eta orain ere aipatu nahi du ez zaiola iruditzen hau denik gure herriari egiten zaion eraso desestrukturatzailerik handiena, baizik eta badaudela benetako erasoak, LOMCErekin zerikusia izan dezaketenak, edo arrazionalizazio-legearekin zerikusia izan dezaketenak, iruditzen zaio horiek direla benetan heldu beharrekoak eta horiei erantzuteko herri gisa planteamendu sendo bat egin beharko luketela.

sigue siendo su eje principal. La desobediencia civil es y será el eje principal de la acción política de BILDU, porque cree que junto con otro tipo de luchas, junto con la institucional, etc. es un elemento imprescindible del proceso soberanista. Pero es muy simple, si se dan condiciones objetivas, si llegan a un acuerdo político por lo menos PNV y BILDU, y también otros, se dará la situación para apelar a la desobediencia. Y él, como alcalde, no tendrá ningún problema para acogerse a la desobediencia ante una decisión así. Tiene dudas de si todos están en la misma lógica. Él no tiene ningún problema, si se dan las condiciones objetivas no tendrá ningún problema para acogerse a la desobediencia civil. Tanto en este, como en cualquier otro caso. También quiere mencionar que no le parece que este sea el mayor ataque desestructurante que se le haya realizado a nuestro pueblo, en su opinión ha habido ataques reales, relativos a la LOMCE o a la ley de racionalización; le parece que son esos a los que hay que hacer frente realmente y que se debe realizar un planteamiento firme para responder ante ello como pueblo.

* Peña andreak (EAJ/PNV) erantzun du inposatzea dela-eta bere ustez egokia zela adierazi duena. Bere taldeari dagokionez, ez dute beldurrik inon eztabaidatzeko; gainera, uste dute hasiera batean irudi dezakeena baino akordio gehiago lortuko dituztela. Desobedientzia zibilari buruz adierazitakoari dagokionez, berak beste jarrera bat espero zuen, eta, pertsonalki alkateari zuzenduz, adierazi du benetan pentsatzen duela hori tranpetan aritzea dela. Ezin da desobedientzia zibila eskatu, aktibaz, pasibaz, pintadekin, mehatxuekin eta denagatik, beste batzuei, eta norberari dagokionean akordioak eskatzea. Beste erantzun bat espero zuen, ikuspegi pertsonaletik esaten dio, kontu hori ez aipatzea ere pentsatu du, zintzotasunez esan du, esan egin behar zuen bere alderdiagatik Errenterian,

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) responde que por el motivo de la imposición, ella entendía que sí venía a cuento lo que ha manifestado. Por parte de su Grupo tampoco tienen miedo a discutir en ningún lado, cree además que con más acuerdos de los que puede parecer en principio. En cuanto a lo manifestado sobre la desobediencia civil, ella esperaba otra postura y dirigiéndose personalmente al Alcalde señala que sinceramente piensa que eso es hacerse trampas en el solitario. Lo que no vale es exigir una desobediencia civil por activa, por pasiva, por pintadas, por amenazas y por todo a otros, y cuando le toca a uno pedir acuerdos. Esperaba otra respuesta, se lo dice incluso desde el punto de vista personal, ha sido una cuestión que se ha planteado no mencionar, lo ha dicho con honestidad, creia que



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Gipuzkoan; benetan kostatu zaio esatea, eta, berriro dio, beste erantzun bat espero zuen. Pentsatzen zuen BILDUk egin behar duen barne-hausnarketa aurreratuagoa zutela, eta orain desilusio handia hartu du, uste du tranpetan ari dela, eta bistakoa denez, beste zerbait espero zuen.

lo tenía que decir por su Partido en Errenteria, en Gipuzkoa, verdaderamente le ha costado decirlo y repite que esperaba otra respuesta. Porque desde la propia reflexión interna que cree deben hacer desde BILDU, pensaba que estaba más avanzado y ahora mismo se acaba de llevar una gran desilusión, cree es hacerse trampas al solitario y a la vista está, esperaba otra cosa.

* Mendoza alkate jaunak (OE BILDU) uste du bi kontzeptu oso desberdin nahasten ari direla, gauza bat da iraganean EAJren gainean izandako jarrera politikoa eta beste bat desobedientzia zibilari buruzko egungo jarrera politikoak, eta ez da ezertxo ere aldatu. Desobedientzia zibila baliozko tresna da eta oraindik ere baliozkoa izaten da desobedientziak berak gehiago eragiteko baldintza objektiboak ematen direnean, momentu horretan bihurtzen da baliozko tresna. Berriro dio iraganean ez duela ezer epaitu, ez ezer ez inor, baina ezinezkoa dena da hemen horrelako salaketa egitea eta berak ez esatea zein diren arrazoiak edo jarrera politikoak. EAJko bozeramaileari kostako zitzaion esatea, baina uste du beraiek ere badutela beren jarrera politikoa zein den esateko eskubidea; jarrera hori partekatuko dute edo ez, baina horixe da berak pertsonalki defendatzen duena. Argi esan du, desobendientziako prozesu bat hasteko baldintza objektiboak eragiten dituzten akordioak badaude, gai honetan nahiz beste edozeinetan, bai eta troikaren neurriei eragiten dieten gaietan ere, ez du inolako eragozpenik horrelako prozesu bat abiatzeko. Baina betiere akordioak lortzen badira, ez EAJ eta BILDUren artean, baizik gizarte-akordio zabalak, horrelako neurriei demokratikoki erantzuteko gai direnak. Gai sozialak ere aipatu dira, herri honetan akordio solidoak egiten badira eta akordio horiei desobedientzia zibileko neurriak erants badakizkioke erakunde-mailan ere, bere aldetik inolako arazorik gabe, horixe baita oraindik ere BILDUren jardun politikoaren elementu

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) cree que se están confundiendo dos conceptos muy diferentes, unas son posiciones políticas en el pasado sobre el PNV y otra cosa son las posiciones políticas en el presente sobre desobediencia civil, y no ha cambiado absolutamente nada. La desobediencia civil es una herramienta válida y sigue siendo válida cuando existan las condiciones objetivas para que la propia desobediencia genere mucho más, en esos momentos se convierte en una herramienta válida. Vuelve a insistir en que no ha entrado a juzgar nada, ni a nadie, en el pasado, pero lo que no se puede pretender es que aquí se haga una acusación de ese tipo y por su parte no se digan cuales son las razones o las posiciones políticas que se puedan tener. Le habrá costado decirlo a la portavoz del PNV, pero cree que tendrán ellos derecho a decir también cual es su posición política, que podrá ser compartida o no, pero que desde luego es la que defiende personalmente. Lo ha dicho claramente, si hay acuerdos que generen condiciones objetivas para iniciar un proceso de desobediencia, tanto en ésta como en cualquier otra cuestión, también incluso en cuestiones que afecten a medidas de la troika, no tiene ningún inconveniente en iniciar un proceso de esas características. Pero siempre que existan acuerdos, no de PNV y BILDU, sino acuerdos sociales amplios que sean capaces de responder en términos democráticos a esta serie de medidas. Está hablando de asuntos incluso sociales, si hay acuerdos sólidos en este Pais y a esos acuerdos se



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

nagusia, halaxe egingo dute. Erantzuna gustukoa izango dute ala ez, baina horixe da bere taldearen iritzi objektiboa.

le pueden incorporar medidas de desobediencia civil incluso en el ámbito institucional, sin ningún problema por su parte, puesto que sigue siendo el elemento central de la actuación política de BILDU, así se hará. Puede gustar o no la respuesta, pero es la que objetivamente en su Grupo consideran.

* Ferradás jaunak (Errenteriako Ezkerra) adierazi du eztabaida hori EAJ eta BILDUri dagokiela eta ez dela sartuko, baina, edonola ere, bi mozio daudela eta EAJren bozeramailearen mintzaldiak agerian utzi duela beretzat desberdinak diren bi logikei erantzuten dietela, eta horregatik eskatzen du bi mozioak bereizita bozkatzeko.

* El Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) señala que éste es un debate que corresponde a PNV y BILDU en el que no va a entrar, pero en todo caso hay dos mociones y la intervención de la portavoz del PNV ha demostrado que corresponden a dos lógicas que él considera diferentes y en ese sentido pide que la votación de las dos mociones se haga por separado.

Mintzaldiak amaitu dira.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak aho batez, bertaratutakoen aldeko botoekin (12 boto),

El Pleno de la Corporación, por unanimidad de los presentes (12 votos a favor),

**E R A B A K I  D U**

**A C U E R D A**

Onartzea BILDU eta Errenteriako Ezkerra taldeek aurkeztutako adierazpen instituzionala, Errenteriako Udalean Espainiako bandera jartzeko betebeharrari buruzkoa, akordio honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

Aprobar la Declaración Institucional presentada por los Grupos municipales BILDU y Errenteriako Ezkerra relativa a la obligación de la colocación de la bandera de España en el Ayuntamiento de Errenteria, que consta en la parte expositiva del presente asunto.

**10. EAJ/PNV taldeak aurkeztutako adierazpen instituzionala, Errenteriako Udalean Espainiako bandera jartzeko betebeharri buruzkoa.**

**10. Declaración Institucional presentada por el Grupo municipal EAJ/PNV relativa a la obligación de la colocación de la bandera de España en el Ayuntamiento de Errenteria**

Mozio hau irakurri dute (gaztelaniaz):

Leída la siguiente moción:

Gaur, Errenteriako Udaletik, Errenteriako ordezkaritza-organo nagusi honetatik, gure herriarekin dugun konpromiso apurtezina berresten dugu.

"Hoy, desde el Ayuntamiento de Errenteria, máximo órgano de representación del municipio de Errenteria, reafirmamos nuestro compromiso inquebrantable con nuestro pueblo.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Gure gizartearen borondate askearekiko errespetuarekin dugun konpromisoa. Konpromiso horren baitan, ezin diogu uko egin euskal herria arlo kultural, ekonomiko eta politikoan borondate kolektiboaren subjektu izatearen aitorpenari.

Nuestro compromiso con el respeto a la libre voluntad de nuestra sociedad. En virtud de este compromiso, consideramos irrenunciable el reconocimiento de la existencia del pueblo vasco como sujeto de voluntad colectiva en términos culturales, económicos y políticos.

Uste osoz baieztatzen dugu euskal herritarren erabakitzeko-gaitasuna aitortzea eskubide demokratiko ezinbestekoa dela. Euskal gizartea, aniztasunetik, hainbatetan agertu da erabakitzeko eskubidea baliatzearen alde.

Afirmamos, con idéntica convicción, que el reconocimiento de la capacidad de decisión de la ciudadanía vasca, es un derecho democrático ineludible. La sociedad vasca, desde su pluralidad, se ha pronunciado en múltiples ocasiones, a favor de ejercer su derecho a decidir.

Aniztasuna mantenduko denaren berme demokratikoa da borondate kolektiboa baliatu ahal izatea; subiranotasun nazionalen betorik gabe, subiranotasun horien ondorio ez diren borondateen instituzionalizazioa baztertzen baitute.

La garantía democrática del mantenimiento de la pluralidad, reside en la posibilidad de ejercitar la voluntad colectiva; de ejercitarla sin el veto de soberanías nacionales, que exluyan la institucionalización de voluntades colectivas que no deriven de tales soberanías.

Aniztasuna errespetatzea da benetako edozein demokraziaren oinarrietariko bat. Baina aniztasuna ez da baliabide erretoriko hutsa, eskubide indibidual eta kolektibo oro errespetatzen duen elkarbizitzaren oinarri baizik.

El respeto a la pluralidad es uno de los fundamentos de toda democracia que por tal se precie. Pero la pluralidad no es un mero recurso retórico, sino el fundamento de una convivencia que respete todos los derechos individuales y colectivos.

Argazki uniformeak lortzeko asmoak totalitarismora eramaten du, inola ere ez elkarbizitzara.

La pretensión de fotografías uniformes sólo conduce al totalitarismo, nunca a la convivencia

Sinismen hain demokratiko horietatik urrun geratzen da, beraz, Espainiako bandera gure erakunde guztietan jartzeko uzia eta bandera horixe balio, printzipio, eskubide eta betebehar konstituzionalen eta Espainiako Estatuaren batasun, independentzia, subiranotasun eta osotasunaren adierazpen izatea.

Muy lejos de estas convicciones profundamente democráticas parece quedar, por lo tanto, la pretensión de que la bandera española ondee en todas nuestras instituciones y que lo haga como expresión de "los valores, principios, derechos y deberes constitucionales que representa" y de "la unidad, independencia y soberanía e integridad del Estado Español".

Horregatik guztiagatik, agindu judiziala errespetatuta eta epaia nahitaez beteta, baina gure

Por todo ello, desde el respeto a la orden judicial y desde el obligado cumplimiento de la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

erantzukizuna baliatuta, proposatzen dugu mozio hau onartzeko:

**MOZIOA**

1) Errenteriako Udalak adierazten du ez dagoela ados eta guztiz gaitzesten duela udaletxeko fatxadan eta osoko bilkuren aretoan Espainiako bandera jartzeko inposatzea, Errenteriako herritar gehienen borondatearen aurkakoa delako.

2) Errenteriako Udalaren iritziz, egitate horiek bereziki larriak dira egungo testuinguru eta momentu politikoagatik. Testuinguru honetan etorkizunean konponbideak lortzeko jarrerak behar ditugu eta ez inposatzeak baliatzen dituztenak.

3) Errenteriako Udalak erabaki du plaka bat jartzea udaletxearen sarreran, inskripzio honekin:

**“Udalbatzak 2014ko martxoaren 25eko osoko bilkuran adierazitako borondate demokratikoaren aurka, Espainiako bandera jarri da, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 687/2013 epaia betetzeko; hau dio epaiak:**

**Errenteriako Udala behartuta dago Espainiako bandera udaletxearen kanpoaldean eta osoko bilkuren aretoan jartzera eta edukitzera.”**

* Puntu honi buruzko eztabaida gai-zerrendaren aurreko puntuarekin (9) batera bildu da.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (OE BILDU, EAJ/PNV) eta abstentzio batekin (Errenteriako Ezkerra)

sentencia, pero en ejercicio de nuestra responsabilidad, se propone para su aprobación la siguiente

***MOCION***

1) El Ayuntamiento de Errenteria muestra su disconformidad y absoluto rechazo a la imposición de poner la bandera española en la fachada y en el salón de plenos del Consistorio, toda vez que va en contra de la voluntad de la mayoría de la ciudadanía de Errenteria.

2) El Ayuntamiento de Errenteria considera que estos hechos son especialmente graves en el contexto y en el momento político en el que se desarrollan. Contexto que necesita de actitudes que faciliten un futuro de soluciones y no de imposiciones.

3) El Ayuntamiento de Errenteria acuerda poner una placa en la entrada del Consistorio con la siguiente inscripción:

**"En contra de la voluntad democrática expresada por esta Corporación en el Pleno del 25-03-2014, se coloca la bandera española en cumplimiento de la sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco nº 687/2013:**

**Declarar la obligación del Ayuntamiento de Renteria de colocar la bandera de España de forma permanente en el exterior del Edificio Consistorial y en el Salón de Plenos de la misma."**

* El debate sobre este punto se recoge de forma conjunta en el punto anterior (9) del Orden del Día.

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 11 votos a favor (O.E. BILDU, EAJ/PNV) y 1 abstención (Errenteriako Ezkerra)



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**E R A B A K I D U**

Onartzea EAJ/PNV taldeak aurkeztutako adierazpen instituzionala, Errenteriako udalean Espainiako bandera jartzeko betebeharrari buruzkoa (gaiaren azalpenean bildu da).

----------

Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak eta PP taldeetako zinegotziak bilerara itzuli dira 19:50ean.

----------

**11. Galderak eta eskariak**

* Herzog jaunak (PP) proposatzen du minutu bateko isilunea egitea Iñaki Azkunaren eta Adolfo Suarezen oroimenez, berriki zendu baitira.

* Mendoza alkate jaunak (OE BILDU) erantzun du gai horiek Bozeramaileen Batzordean aztertu ohi direla eta iruditzen zaio halaxe egin beharko litzatekeela hemen planteatu baino lehen, hori iruditzen zaio egokiena. Galdetu du oraindik ere proposamenarekin aurrera jarraitzen duten.

* Herzog jaunak (PP) adierazi du Adolfo Suarez Bozeramaileen Batzordearen ondoren zendu dela.

* Mendoza alkate jaunak (OE BILDU) erantzun du Bozeramaileen Batzordea, nahi bada eta proposamena egiten bada, goizean egin daitekeela, halaxe egin dutela hainbatetan.

* Herzog jaunak (PP) komentatu du arazo formala bada, pendiente utzi daitekeela.

* Mendoza alkate jaunak (OE BILDU) erantzun du gaia Bozeramaileen Batzordera eraman nahi bada, ez duela inolako arazorik. Baina iruditzen zaio ez dela osoko bilkura baten galdera eta eskarien

**A C U E R D A**

Aprobar la Declaración Institucional presentada por el Grupo municipal EAJ/PNV relativa a la obligación de la colocación de la bandera de España en el Ayuntamiento de Errenteria que consta en la parte expositiva del presente asunto.

----------

En este momento, cuando son las 19:50, los Concejales de los Grupos Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak y PP se reincorporan a la Sesión.

----------

**11.- Ruegos y Preguntas**

* El Sr. Herzog (PP) propone se guarde un minuto de silencio por la memoria de Iñaki Azkuna y de Adolfo Suarez, recientemente fallecidos.

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) responde que estas cuestiones acostumbran a hablarlas en la Junta de Portavoces y le parece que así debiera hacerse antes de plantear cualquier cuestión, considera que es lo más adecuado. Pregunta si siguen manteniendo la propuesta.

* El Sr. Herzog (PP) señala que Adolfo Suarez ha fallecido después de la Junta de Portavoces.

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) responde que la Junta de Portavoces, si se quiere y hay una propuesta, se puede celebrar por la mañana, así se ha hecho en innumerables ocasiones.

* El Sr. Herzog (PP) comenta que si se trata de un problema formal, se puede dejar pendiente.

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) responde que si se quiere trasladar el asunto a una Junta de Portavoces, no tiene ningún problema en hacerlo. Pero considera que no es un tema para plantearlo en



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

puntuan planteatzeko gaia, bere ustez gauza horiek hitz egin behar dira eta ahalik eta adostasun handienarekin ateratzen saiatu, hildakoez hitz egiten ari baitira.

el punto de ruegos y preguntas de un Pleno, cree que estas cosas hay que hablarlas e intentar sacarlas con el mayor consenso posible, porque están hablando de personas fallecidas.

* Herzog jauna (PP) ados azaldu da.

* El Sr. Herzog (PP) se muestra de acuerdo.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.

----------

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:55 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut autonomia-erkidegoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 19:55 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net